


22 zka 1994.eko urria


EGASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



Martin Fiz
Arabako txapelduna
geure txapelduna



Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

geu GASTEIZ ekaina

The murderer is...
literatura beltzari
buruzko ihardunaldiak
Gasteizen.
9. orrialdea



Esperantoa:
nork berea, esperanto
guztiena.
15. orrialdea



Kilkir fanfarreko
kideekin hizketan

inkestak

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Gasteizen euskara eta apaizak

Odon Apraizek dio Araban
euskara atzeraka, nagusiki
XVIII. mendean hasi zela.

Landazurik, lehenago, argi ematen digu atzerakada horren aitortpena 1798an. Jakingarrienak, ordea, Landazurik ematen dituen atzerakada horren arrazoia dira: bata, apaizen euskararekiko arduragabekeria («al haber entrado por Curas párrocos en los pueblos de Alava personas que ignoraban este idioma, ó que no hacían aprecio y caso de usar de él...») eta, bestea, auzo-gaztelauekin Arabak zituen ezinbesteko harremanak.

Jakina, guri gaur axola zaiguna, lehengo galerak galera, lehenago egin edo/eta jasandako okerrari itzulia ematea da, erremedioa jartzea, hots, euskara berreskuratzea.

Beldur naiz, ordea, oraingoan ere lehengo etsaiak berak izango ote ditugun Gasteizen.

Batetik, apaizak. Hainbat haur eta gaztetxo B eta A ereduetan, hainbat



ikastola Gasteizen! Eta elizan, zer? Zenbaterainokoa (batik—bat nolakoa) da elizan euskararen presentzia: dotrinan, mezatan, eliz inguruko bilera eta ekintzetan? Euskaraz ari diren apaizei begiratu besterik ez; ez ote aski esku ateko hatzak Gasteizen euskaraz ari diren apaizak kontatzeko? Hobe oker banengo!

Bestetik auzo-erdaldunak. Lehendiko bertako erdaldunduak eta erdalduna gutxi bailiran, Legebiltzarra eta Jaurlaritza (eta, ai, laster Arartekotza) direla-eta, hainbat eta hainbat bilbotar eta beste erdaldun/erdaldundu ari da «bertakotzen». Eta hauxe da nire galdera edo kezka: Gasteizen bertakotzen ari diren lehengo bertako gehi konpotiko euskaldunen eta «bertakotzen» ari diren erdaldunen arteko balantzak norat egingo ote?

Bada esperantzarik Gasteiz berreuskalduntzeko, eta, dagoeneko, hainbat eta hainbat zantzu eta errealitate nabari da. Baina, arbolari izerdi bizia sortzen eta itsasten ari zaizkionen ondoan, badira bertan izerdia lehorrarazi —utzikeriaz, alferkeriaz nahiz berariaz— nahi liokeen hainbat jende-mota; hauetarik asko, euskararen atzerakadan, XVIII. mendean eskuhartu zutenak berak, nik uste.

Dionisio Amundarain.

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Erredakzio-batzordea: Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Díaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mitz de Santos, Olatz Irizar, Miel Anjel Elustondo **Koordinatzailea:** Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrazkiak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo **Publizitatea:** Rakele Peña, Martin Rezola **Argazkilaria:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Jon Onaindia **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik

GASTEIZ aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

KALEA: _____

Kode Postala: _____

HERRIA: _____

ZKIA: _____

Pisua: _____

kalea mintzo Trebiñoz



TERI RUIZ IBISATE
funtzionaria



KOLDO UNZALU
ikaslea

1. Bai, jakina. Horixe da Arabar guztion gogoia eta hemengo agintariek horren arabera jokatu beharko lukete, Araba erabat osatu arte.

2. Pittin bat itxoin beharko dugu. Administrazioak errespetatu beharko luke Trebiñoko lagunena nahia.

1 Bai, zalantzarik gabe, eta betez ere bertako biztanleen gogoia horixe delako. Dena dela, Arabako politikariek gogorrago ihardun beharko lukete hori lortzeko.

2. Epe laburrean ez dut uste. Burgoseko Administrazioak duen jarrera ikustea besterik ez dago.



BERTSOAK

Ikasturtea
hasi da

A inara Razkin

I
Urria etorri da ta iadanik
hasi gerade ikasten
ikasten edo ez baina gutxinez
klaseetara joaten
gutxi bada ere bukatu dira
ia jai gehienak aurten
baina zu lasa, ez haserretu
ta segi kalera irteten.

II
Liburu asko erosi eta
hori dena ikasteko
hau dena ikusi ta ematen du
pereza asko hasteko
zortzitan jeiki erdi lo joan
gero asko aspertzeko
bukatu dira gure oporrak
ta prest egon lanerako

GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Duela aste batzuk ospatu zen Argantzonen Trebiño Eguna. Alderdi politiko guztiak bat eginda azaldu ziren egun horretako ekitaldietan parte hartzeko deialdeia zabaltzeko orduan. Batasun edo adostasun hori

lehenik ikusita genuen Trebiñotarren artean Arabaren gainerako lur-eremua bildu nahi dutela behin eta berriro berretsiz. Oraingoan berriz, hainbat gasteiztarri eman diogu gai horretaz duen iritzia emateko aukera:

1. Trebiño Araba al da? Zer egin beharko luke administrazioak?

2. Posible ikusten al duzu Trebiño Araba izatea? Noizko?



ANA SERRANO
geologoa

1.Bai, uste dut baietz. Baina Administrazioak kontu horretan sartu behar du eskua zerbait lortuko bada.

2. Ez dakit. Espero dut Trebiño egunen batean arabarra izatea, baina ez dakit.



DIEGO PATA
ikaslea

1.Bai, jakina. Trebiño Arabako beste edozein herri bezalakoa da eta horretarako Administrazioak egur gehiago eman behar du.

2.Bai. Ez dakit zenbat denbora behar izango den baina egunen batean Araba barruan egongo da Trebiño



IRATXE SAGARNA
langabea

1.Bai, dudarik gabe. Baina, nire ustez, Administrazioak ez du presarik kontu hau konpontzeko. Horregatik ez da ezer aldatu azken urteotan.

2.Ez, ez da Araba izango. Egoerak errotik aldatu beharko luke horretarako.



JUAN MARIA BEIZTEGI
langabea

1.Bai, jakina. Trebiñoko jendearen nahia aintzakotzat hartu beharko luke hango administrazioak eta aurrera eramane.

2.Bai, nahiz eta horretarako gogor borrokatu behar izan, Trebiño arabarra ahalik eta azkarren izatea espero dut.




PACK GAZTEA

Orain jantzi ditzakezu 6 hilabetetako Multilens lente botatzekoak, Ixurkari Bakarreko bi ontzi eta kutxatila, zoratzeko prezioan. Eta gainean, Folding izeneko Ray Banak jarriko dituzu kitorik. Hori guztia, Mendia Optikak eskaintzen dizkizun zerbitzuaz eta garantiaz, jakina.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
Gasteiz

Katekesia Gasteizen euskaraz



Gasteizko kristau euskaldun batzuk Pilareko eliza bihurtu dute beren topaleku. Hamazazpi urte dira elkarte eraiki, sendotu eta zabaldu nahian dabiltzala. Gasteizen badira beste euskal talde batzuk: Erreparadorak, Jesus Langile, Jesukristo Berpiztua parroki berria, Arana auzoko eliza. Gaur Pilareko apaizarekin, hau da aita Emiliorekin, jarri gara harremanetan. Katekesiari buruz galdetu diogu.

GEU GASTEIZ: Noiz sortu zen euskal katekesia Gasteizen ?

AITA EMILIO: Katekesiaren beharra sortu zenean. Lehenago Gasteizko familia euskaldunak gutxi zirenez, etxeko giro euskaldunarekin batera erakusten zieten dotrina beren haurrei. Familia, kalea eta eskola nagusiki kristau moldetan oinarritzen ziren. Elizak ez zuen bere ardura haundien artean heziketa kristaua. Nolabait giroak ziurtatzen zuen heziketa katolikoa. Egoera erlijiosoa hozten hasi zenean, orduantxe sortzen da katekesiaren beharra. Beraz, katekesia gaur ezagutzen dugun eran nahiko berria da. Adibide gisa: Pilar elizak 22 urte beteko ditu laister. Ez zuten katekesia emateko gela bat bera ere egin. Pilareko euskal katekesiak 17 urte daramatzala ohartuta,

erraz antzeman daiteke euskaldunak ez ginela atzera gelditu katekesi arloan hain gutxi izan eta sakabanaturik bizi arren.

G.G: Nondik sortu ziren katekista euskaldunak ?

A.E.: Kristau elkarte euskaldunetik. Orain dela 27-28 urte hasi ziren Gasteizko euskaldun batzuk biltzen Brigidetan lehenengo, gero Erreparadoretan, baina orain dela 17 urte Iñaki Oregi apaiza eta guraso euskaldun batzuk saiatu ziren katekesia euskaraz ematen, kristau elkarte euskalduna sendotzeko asmotan. Leku egokirik ez zen inon, Pi-

lareko elizan onartuak izan ziren arte. Harrezkero hementxe gaude.

G.G.:Katekista izateko zer behar da ?

A.E.:Euskaldun eta kristau elkartean partaide izateaz gain, katekesiaren balioaz jabetzea, eta ordu egoki batzuk dohainik eskaintzeko aukera izatea. Guzti hau teoria. Gero praktikan ezagunen bat katekesian izateak, edo apaizaren dei zuzenak, etxekoen azken bultzadak edo katekisten artean bizi den giro jator apartak ere balio du katekista sartzeko.

G.G.:Zeintzuk dira katekisten zailtasunak ?

A.E.:Denonak. Denbora falta, nagusiki. Horretarako kontuan hartu behar dela

“ **Gasteizko euskaldunak oso dinamikoak dira** ”

gure testuingurua nolakoa den. Gure errealitatean oso ondo integraturik gaude, eta batere zailtasunik gabe parte hartzen dugu herri-ekimen askotan. Gasteizko euskaldunak oso dinamikoak dira, mugida guztietan daude sarturik. Gure elkarte euskalduna oso bizia da. Elizkide asko musikarekin lotzen da (Abesbatza zenbaitetan; nik 7 edo 8 talde ezagutzen ditut: Araba, Lautada, Olabide, Udal folklore eskola, Udaberria, Psalite, Hostozabal,...). Txistulariak ere ez dira gutxi, eta ez dira batere txarrak; dozena erdi trikitrilari, txalapartari, dantzari herrikoak eta dantza taldeetan antolatuak eta abar. Kiroletara joanda hor ikusten dituzu elkarte euskaldunaren kideak ere.

G.G.: Zein da euskal katekesiaren helburua ?

A.E.: Izatez bat da katekesiaren helburua, Jesukristoren Ebanjelioa bizitzen irakastea, baina gure hizkuntz-egoera hain zaila izanik azpimarratu egin behar dugu euskaraz egiten dugula. Gaietikoek ez dute horrelako kezkarik. Ez dute inon jarri beharrik "katekesia alemaneraz edo gazteleraz".

Euskalduna den partetik gure katekesiak euskaldunon eskubidea zaintzen du. Gorabehera gutxiko auzitan nahastu gabe, lana egiten saiatzen gara eta kitto.

Kristau bezala haxe dugu jomuga; Kristau Elkartearen bizitza osoa sendotzea. Horretarako elizkideok prestatu behar izaten dugu geure burua, gaurko arazoei ahalik eta ondoen aurre egin ahal izateko. Hori kristau elkartearen ikuspegitik. Dena den, guztiek ez dute horren susmorik ere. Batzuk Lehenengo Jaunartzeagatik bakarrik etortzen dira. Helburua lortzerakoan ahaztu egiten dira katekesiaz. Hauen iraupena bi urtetakoa izaten da. Gure antolakuntzan 13 urte edo maila ezberdinak ditugu. Beraz, gure inguruan dabilen

jendea nahiko kontzientziaturik dago. Beste batzuk, berriz, katekesian hasi ondoren elkarte euskaldunaren partaide sentitzen dira eta gogotsu jarraitzen dute.

G.G.: Nolako katekistak dituzue ?

A.E.: Banan banan hartuta ganorazko etxeoandre fin maitagarriak dituzu. Koadrilan dabiltzala saltsera hutsak, dantzari arinak (trikitrilari gaizajuok...),



Gorabehera gutxiko auzitan nahastu gabe, lana egiten saiatzen gara eta kitto

G.G.: Etxekoandreak bai, baina ba al dago katekista gazterik ?

A.E.: Nahi beste, ez. Baina 19 eta 25 urte arteko neska-mutil talde ederra osatzen dutela, inork ezin du ukatu. Gaztetxo eta gazteen katekistak, gazteak dira. "Monitore" edo "begirale" izenez dira ezagunagoak.

G.G.: Ba al dago arazorik euskara dakiten katekistak aurkitzeko?

A.E.: Bai, arazorik egon badago, baina ez oso bereziak. Gasteizko euskal giroan bizi garenok euskaldun ugari ezagutzen dugu. Baina jendea nahiko lanpeturik dago. Guraso gazteak urte batzutan ez dira inora iristen. Umeak hazten dituzten bitartean osoki harrapaturik daude. Bikotea landuna denean okerrago oraindik.

Hala eta guztiz ere eliz-arloan gutxi izatea ez da arazo larria. Gogorik gabe bagenbiltz larria litzateke. Momentuz beharrezko diren katekistak azaldu dira. Gehiago animatuko balira askoz hobeto.

G.G.: Umeen kopuruak gora edo behera egiten dute ?

A.E.: Oraintxe arte gora egin du. Beti oso leun igo delarik. Zentru ezberdinak zabaldu arren ez da umeen kopua gutxitu. Hemen badago kezka haundi bat. Ume gehiegi etorriko balitz, ez genuke nahiko azpiegitura izango. Katekesirako deia ez da oso zabala egiten, eta kontrolpean dugula esan dezakegu. Baina ume euskaldun asko sartzen da oraindik erdal taldeetan. Batzuk auzokide sentitzeko, beste batzuk euskaldunegiak ikusten gaituztelako, beste batzuk txepelegiak garela esango dute, eta beste batzuk parrokiaren hurbiltasunak erakarrita. Gasteizko euskaldunen artean ez da batere harritzekoa beren bizitza erlijiosoa erdaraz eramatea, erdaraz hezitua izan zirelako.

G.G.: Elizaren aldetik nola onartzen dute zuen lana euskaraz ?

A.E.: Gu eliztar jatorrak izaten ahalegintzen gara. Beraz, gu elizkide garen aldetik elizak oso ondo ikusten du gure lana. Dena den, Arabako Elizaren kezka nagusia ez da euskaraz ala erderaz egiten den katekesia.

Susana Calleja



**KATEKESIA
EUSKARAZ
GASTEIZEN**

ASTROLOGIA

Iñaki Gauna

Zerutik lurrari begira

Jupiterren kontrako lehengo talka (94/7/16) (ezkerretik eskumara eta goitik behera

- a) Jupiter, lehen talka jaso aurretik
 - b) Jupiter, lehen talka jaso eta berehala
 - c) Diztira-guneak maila gorena lortzen du
 - d) Diztira-gunea lausotuz doa apurka apurka
- Eskumaldean ikusten den argi-gunea IO satelitea da.



IRAILAREN 24TIK Libran gaude eta, beraz, udazkenean. Hilabete hau aproposa da, berez, tolerantzia, armonia eta oreka zer den ikasteko. Baina hauteskunde-kanpainian murgilduta, badirudi hori bilatu beharrean norberak bere burua justifikatzearekin nahikoa izango duela. izan ere, urriaren 24ean, hau da, hauteskunde-egunean, Libratik atera, Eskorpion sartu eta orduan zailagoa izango da edozein akordio lortzea. Hauteskundeetan ez dirudi txundituta gertzeko aukera izango dugunik: EAJ nagusituko omen da, jaurilaritza osatzerakoan limitazio asko izango dituen arren. Seguruenik PSOErekiko akordioari jarraitzen saiatuko da baina ez da erraza izango PSOEK beherakada haundia izango baitu eta PPK aldiz gora egingo omen baitu nabarmen kanpaina erasokorra burutu eta gero. IUk ere gorakada haundia izango du, dirudienez eta. Gainontzeko alderdien kasuan ez dirudi aldaketa azpimagarriarik egongo direnik.

Bestetik ere, ez dugu ahaztu behar Jupiterrek uztailan jasotako talka-multzook eragina haundia izango duela ondorengo hilabeteetan: enkistatutako gorrotoak berpiztu eta areagotuko dira,

eta mendekua hartzea jokaera nagusi bihurtuko da. Gorrotoa eta iskanbilak direla eta, gogora ekarri nahi nizueke San Juanen Apokalipsiaren zati bat.

Egia esan, nere ustetan, 3. zigilua Juan Pablo I.aren heriotzarekin askatu zen eta 4. zigilua 1991. urtean (Tianamengo plazako gertaerak, krisia eta hildakoak Tibeten,...). Antza denez, 5. zigilua datorren urteko udaberri/udan irekiko da Alemanian. Hona hemen, bada, 5. zigiluari dagokion testua: «Bildotsak bosgarren zigilua ireki zuenean, Jainkoaren mezuarengatik eta eman zuten testigantzagatik hildakoak ikusi nituen aldare azpian bizirik. Ozenki egiten zuten deiadarka, esanez: Noiz arte, Jaun santu eta egiazko horrek, ez diguzu justizia egin behar, gure hilketa lurrean bizi direnen lepotik mendekatu gabe utziz? Orduan, bakoitzari jantzi zuri bana eman eta oraino apur batez itxarroteko esan zien Jainkoak, harik eta beraien bezala hilko zituzten zerbitzukide eta senideen kopurua osatu arte»

Eguraldiari buruz esan liteke uda lehorra pasa eta gero, euri ugari izango dugula udazken-hasieran eta tenperaturak egunean zehar nahiko epelak eta gauean hotzak izango direla.

Euskara ba(n)tua



NORK EZ daki, gaurregun, nortzuk ziren Isabel eta Fernando? Bada... dirudienez Gazteizko udaletxean ez dute batere garbi, ikusi bestela Gasteizen jarrita duten kartela.

Noiz arte jasan beherko ditugu horrelakoak?!

Dohainezko iragarkiak

Umeak zaintzeko prest nauzue.

Aintzane • Tfnoa: 27 09 64

Euskalduna bazara eta umeak zaintzeko prest baldin bazaude dei egiguzu

Tfnoa: 26 25 92

Kanguro euskaldun bat behar baduzu dei egiguzu.

Tfnoa: 26 25 92

restaurante • jantoki
DOS HERMANAS

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano

madre vedruna, 10

☎ 13 29 34
13 44 46

01008 gasteiz

kalitaterik onena !

the murdered is...



Literatura poliziakoaren jarraitzaileok pozteko arrazoiak baditugu. Julian Symons, Margaret York, Lindsay Davis, Manuel Blanco Chivite, Raul Guerra... idazleek eta beste gonbidatu askok ere gurekin izango ditugu beren bizipen eta une misteriotso eta gozoak gureganatzeko, urriaren 17tik 19ra Gasteizen burutuko den "Polizi-literaturaren II. ihardunaldi internazionalen". Ez da ezer faltako, ezta britaniar umore beltza ere.

AURTEN ERE, Arabako Foru Al-
dundiko Kultur Sailaren eta British
Councilen iazko ekimenari bultzada
emanez, polizi-literaturaren inguruko
ihardunaldi internazional zapoetsu bat
gozatzeko aukera izango dugu urriaren
bigarren hamabostaldian Gasteizen.
Estatuko zein britaniar irletako idazleak,
guztien ezagun diren kritikoak, sukaldari

eta enologoak, egun generoan aurki
daitezkeen filmarik esanguratsuenak,
den-denak izango dira misterioz eta
suspentsez beteriko koktel honetako
nahasgaiak.

Iaz bezala, Agency bulegokoen ardura
izan da soka guztiak behar bezala lotzea,
idazleak deitu eta baita hainbat ekitaldi
antolatzea ere. Bertoko Edurne Anta-

rekin mintzatu gara, besteak beste, bera
eta generoarekiko duen zaletasuna izan
baitira ihardunaldi honen anto-latzearen
errudun. Denon buruan bezala, berean
ere dago Gijon hiriko Literatura
Beltzeko Aste oihartzunduna, baina
Edurneren esanetan Gasteizkoak ez ditu
haren pausuak jarraitu behar: "Ahal
izanez gero, Gijonekoa gainditu behar
dugu. Hangoa salmentetara zuzendua

dago; hemen egiten denak, berriz, idazlea eta irakurlegoa aurrez aurre jartzea du helburu. Iaz Pablo Casals idazleak esaten zigun bezala, autorea zerbait dela sentitzen da berton, jendearekin bat egiten du". Horregatik Gijon hirian antolatzen dena baino askoz ere gorago igo nahi dute antolatzaileek, eta orain ihardunaldia bideratua dagoela, merezi-tako jarraikortasuna eman beharrean gaude denok.

Guztientzako kultur koktela

Urriaren 17an emango zaio hasera ihardunaldiari, goizeko hamabietan hain zuzen ere, horretarako burutuko den prentsurrean. Berau Arabako Foru Aldundian izango den arren, laster beste gune batzuek hartuko diote erreleboa.

Batetik, eta agian ekitaldirik erakar-garrienak jasoko dituen, Kultur Etxea izango da, Bertan liburuen aurkezpenak, hitzaldiak, eta mahai-inguruak emango dira, erakustaldi iraunkor batzurekin batera. Bigarrenik, Ingeles Filologiako ikasleek autore britaniarren hitzak entzungo dituzte, ingelesez soilik eta beren Fakultatean izango den saioan. Eta azkenik, Gasteizko sei liburutendatan irakurleok gure autore gogokoenen liburuak sinatuak izateko aukera ezinhobea izango dugu.

Parez pare, eta urriaren 17tik 21era, Guridi zinemetan "Polizi-zinemaren Astea" burutuko da. Antzeko esperientzia bat bizi genuen iaz ere, baina aurtengoa zeharo ezberdina izango da Edurneren ustetan: "Filma guztiak bere bertsio

originaletan ematen saiatuko gara, zinema beltzak oso soinu berezia baitauka. Horrez gain, eta tituloak oraindik baieztatzeke badaude ere, EITBko kritiko den Felix Linaresak aukeratu ditu; beraz, beren maila ezinaltuagoa izango dela esan dezakegu aurretik. Filma guztiak ikusteko bono batzu salmentan jarriko dira, oso prezio merketuan aukera hau ikusle guztiek aprobetxa dezaten. Izan ere, hau da ihardunaldi osoaren izpiritua, jende guztiarengana heltzeko nahia. Gasteizen kultur ekitaldi anitz dugun arren, ez dira oinezkoaren poltsikora egokitzen. Hiru egun hauetan, aldiz, irakurzaleok gure autore kuttunenak entzun, beraiekin mintzatu, liburuak sinatzera eraman, eta beste hainbat gauza egin ahal izango dugu eskua karterari gehiegi atxeki gabe. Ni aukera ezinhobea delakoan nago eta denok aprobetxatu behar gara horretaz".

“**nobela beltzak eta gastronomiak betidanik izan duten erlazio estua ezaguna da**”

Gastronomia nobela beltzean

II. ihardunaldi honetako nobedaderik gozoena, inolako dudarik gabe, urriaren 18an "Krimena eta Gastronomia" izen-buruean burutuko den mahai-ingurua izango da. Nobela beltzak eta gastronomiak betidanik izan duten erlazio estua ezaguna da guztiz. Polizi-literaturan, pozoiamendu baten inguruan mamitzen den pasarte orok, autoreak gastronomiaren inguruan dituen ezagupen nabariak erakusten dizkigu. Eta jakituria hori zabaltzeko aukera izanez gero,



axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



izozkiak

maleta prestatu eta edonora joateko prest agertzen dira generoko idazleak. Hauxe gertatu da oraingoan Julian Symonsekin, jada munduko literatura beltzeko klasiko bat. "Iazko partaide batel arabar errioxako ardoaz hitz egin zionean, begia piztu zitzaizkion Symonsi, eta aurtan ez du aukera alperrikaldu nahi izan".

Hori izan daiteke, gainez, Julian Symons adintsua jendeaurrean ikusteko azken aukera, ezin galtzekoa, beraz. Baina autore horrekin batera, beste guztiek hartuko dute parte mahai-inguru honetan, publikoaren

artean eserita egongo diren arren. Eta horiekin, Manuel Quinto bezalako aditu bat, gure sukaldari onenatariko bat den Patxi Anton, eta krimena eta ardoaren arteko erlazioaz arituko den enologo bat. Dastapen gogaigarria, inolako dudarik gabe, aurrez aipatutako hau, eta baita

"Polizi-literaturako idazleen II. ihardunaldiak" eskeiniko dizkigun beste ekitaldiak ere. Horien guztien berri izango duzue, bertara ezin joanak bazarete, gure Geu Gasteizeko hurrengo alean. Ordurarte, on egin diezazuela.



zer ikusi • egitaraua

urriak 17

Arabako Foru Aldundia
12.00: Aurkezpen prentsaurrea
12.30: Liburu aurkezpenak
Lindsay Davis
Mtz. Lainez eta Fdz. de Urbina

Kultur Etxea

17.00: Hitzaldia: "Krimenaren Damak"
Lindsay Davis
Margaret Yorke
Mahai-ingurua
Lindsay Davis
Margaret Yorke
Julian Symons
Moderatzailea: Fernando
Martinez Lainez

urriak 18

Geografia-Historia eta Filologia Fakultatea

10.00: Hitzaldia (ingelesez)
Lindsay Davis
Margaret Yorke
Julian Symons

Kultur Etxea

17.00: Mahai-ingurua: "krimena eta gastronomia"
Manuel Quinto
Patxi Anton (sukaldaria)
idazle guztiek auditorium-atik hartuko dute parte

urriak 19

Kultur Etxea

17.00: Hitzaldia: Julian Symons; bere

idazlana

Mahai-ingurua: "Literatura Poliziakoaren joera berriak"
Manuel Blanco Chivite
Raul Guerra Garrido
Felix Linares
(EITBko kritikoa)
Moderatzailea:
Fernando Mtz. Lainez

urriak 18 eta 19

Aleen Sinadurak

12.00: Axular
Ayala
Jakintza
Herrikoia
Linacero
Study

Zinema Poliziakoaren astea

Urriaren 17tik (astelehena) 21era (ostirala)
Guride Zinemak: 1. zinetokian

Erakustaldiak

Kultur Etxean:
The Art of Murder
(Kartelak. The British Council)
Literatura poliziakoaren inguruko erakustaldia

Kultur Etxean burutuko diren ekitaldi guztiak dohainik izango dira eta aldi-bereko itzulpenarekin



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea
Tfnoa.
284196
01005 GASTEIZ

Kepa Mendia:

«gezurrik handienak isilik esaten dira»

Atal honetan agertzen diren pertsonaia guztiak bi gauza dute amankomun: gasteiztarak dira -jaiotzez, afizioz edo ofizioz- eta euskaldunak. Hurrengo zeu izan zaitezke!



GALDERA: DUZUN BIZIORIK HANDIENA?

Erantzuna: Esan dezagun bidaiatzea gustatzen zaidala. Bizitza, asko. Parranda-lagunen artean ibiltzea-, asko... andreari ere gustatzen zaio eta ez dago prolemarik etxean.

BERTUTEA?

Oso jarraikorra naizela. Gauza bat hasten dudanean, jo eta zeratu arte ez dut uzten.

ZE ALDE DAGO «JARRAIKORRA» ALA «EGOSKOGORRA» IZAN?

Txikia, nik uste.

FAMATU ADISKIDE BATEN IZENA?

Adiskide... ez dakit hainbestearino den baina Txillardegi, Bernardo Atxaga, Abel Enbeita... euskal munduan ibilitakoak,

asko ezagutzen ditut.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Lana, esaten dutenez. Lana, bakea... neuk eskatuko nukeena, askatasuna eta lana.

ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

Osasuna eta umorea.

GASTEIZ, VITORIA, GASTEIZ-VITORIA ALA VITORIA-GASTEIZ?

Niregatik balitz, Gasteiz. Eta politikari banintz, ni alkate banintz, aukera emango nuke: edo Gasteiz edo Vitoria, bakoitzak hauta dezala. Baina Vitoria-Gasteiz... horrek ez du etorkizunik, azkenean Vitoria izango da eta.

JENIORIK BAI?

Bai; hala esaten dute. Nork esaten duen? Ingurukoek. Baina hori urteekin lasaitu egiten den kontua da. Nik uste.

GEU ELKARTEAREN BERRIRIK BAI?

Bai, partaide naiz. Oso begi onez ikusten dut, duda gabe. Gasteizko euskaldunak elkartzea, batzea, trinkotzea... oso asmo polita da, zaila ere bai. Batetik euskaldunak minoria gorrian gaudelako Gasteizen, eta bestetik oso sakabanatuak ere bai. Asmoa oso polita da. Aski indarrik izango ote dugun, ez dakit.

EGUNKARI BAT?

«Egunkaria».

TELEBISTA PROGRAMARIK?

Telebista badugu, baina ez dugu ikusten. Kirola ez bada, nik ez dut ikusten. Kirola

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Benito

liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14

GASTEIZ

“**Gasteizko euskaldunak elkartzea, batzea, trinkotzea... oso asmo polita da, zaila ere bai**”

edo film onen bat, baina filmeak ere ez zaizkit gustatzen telebistan, ez ditut gustora ikusten eta.

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Deskantsatzeko. Eguneroko girotik urrun.

ETXEKO LANAK NOREN KONTURA?

Gauza bat da teoria eta beste bat praktika. Teorian, lana partitu behar da. Nork egiten duen? Nik esango nuke andreak; baina badu laguntzarik, ez dago bakarrik.

NONGOA DUZU EUSKARA?

Nik esango nuke “batua” dela gehien bat.

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Beharbada, gauzak motelegi egiteak -nik pazientziarik ez baitut-, eta zer edo zer lortu nahi dudanean eta ez dudanean lortzen... horrek jartzen nau izugarri urduri. Bat-batean izan behar da. Hori nire akats bat da. Badakit gauzak ez direla horrela egiten baina... pazientziarik eza! Nola esaten zuen Axularrek? “Geroko gerotan ibiltzea”... horrek ateratzen nau nire onetik.

FILMERIK?

Izenetarako oso txarra naiz, baina aspaldi honetan ematen dituzten asko eta asko ikusi ditut: “La lista de Schindler”, “La edad de la inocencia”...

AKTORE IZENIK?

Anthony Hopkins, “Bildotsen isiltasuna” filmean. Ileak lastu zizkidan film horrek.

TXIKITAKO OROITZAPEN BAT.

Kirol ingurukoak. Igeri egiten nuen eta orduko lagun asko baditut oraindik ere; oso ondo pasatzen genuen.

GORPUTZ ATALIK POLITENA?

Batzuek esango lukete begiak, baina ez dut hain ondo ikusten eta... ofizioz bada ere, bada, begiak.

AMETSIK?

Euskal Herri euskalduna.

Bere bizitzaz zertxobait



- ☐ Gasteizen bertan sortu zen. <Aspaldi, 52an>. Akuario da. <Urtarrilekoa naiz, 25ekoa; eta igerilari ona>. Gaztetan igerian asko eginga da.
- ☐ Madrilen ikasi zuen, Optiko, eta Enpresaritzaz. Optiko da oroz gain. <Enpresaritzaz ikasi eta titulua eskegi egin nuen>. Estudioak medio zazpi urte bete zituen Madril. Hantxe ikasi zuen euskaraz, bertan euskalzaletu.
- ☐ Madrilen bukatu, Gasteiza heldu, optiko lanari ekin eta euskal filologia ere ikasi zuen bertan. Lehen belaunaldikoa da.

- ☐ Hiria erdian bizi da. Santa Barbara plazan. Aitzakiarik ez. <Zoragarria. Goi-goian bizi gara eta Gasteizko mendiak ikusten ditugu>.
- ☐ Ezkondua, Maite du emazte. Madrileko ikasketak bukatu eta horixe egin zuen aurren-aurrea. <Ezkonduta, berehala>. Hiru alaba dituzte. Anaiz da nagusia -14 urte-, eta Izar eta Maialen 13 urteko gazteak; bizkiak dira hauek.
- ☐ Ikastea gustatzen zaio. <Ikasle betierekoa naiz ni. Hizkuntzak ikastea izugarri gustatzen zait>. Kirolzale handia ere bai. <Kirolari aktibo eta pasiboa -besaulkikoa-, biak>. Igeria eta oinez ibiltzea ditu gustoko, besteak beste. Saskibaloian eta futbolekin ere egin zuen gazteago zela. <Txirrindularitza ere asko gustatzen zait>.
- ☐ Erabat emakumezko inguratuta bizi da, hala etxean nola lanean. Ongi moldatzen da.
- ☐ Ez daki zertan den bere atraktiboa. <Ez dakit, ez dakit. Hori bestek esan beharko luke>.

GIZARTE ARLOAN, ZER ALDATUKO ZENUKE?

Ez da erraza. Norberaren ohituretatik hasiko nintzateke. Kulturari emango nioke garrantzia. Nik pertsonarengan sinisten dut, pertsonaren kulturaz, eta nik horixe uste dut: gauzak aldatzeko norberagandik hasi behar.

DENBORA ETA DENBORA IZANEZ GERO, ZER EDO NORA?

Pozik joango nintzateke Ameriketara edo Ingalaterrara, urte batez edo biz. Zertara? Ingelesa ikastera, kultura bat ezagutzera... behar bada ikasle bizitza gogoratzen.

LIBURUREN BAT? IDAZLEREN BAT?

“Gizona bera bakardadean”. Baina nik maite dudana Atxaga, Balantzategikoa da.

ZEIN DA ZURE BARRUKO MOTORRA? ZER DUZU ERAGINGARRI?

Lana, esan daiteke. Eguneroko borroka hori. Horrek mantentzen nau forman, norgehiagoka horrek.

INOIZ ESAN DUZUN GEZURRIK BOROBILENA?

Gezurrik handienak isilik esaten dira

ZEIN DA ZURE MAITASUN EGOERA?

Andrearekin bizi naiz, oreka ederrean; itxuraz behintzat.

ERLIJIO SINESMENIK?

Ez naiz praktikantea.

ZER ERAMANGO ZENUKE UHARTE BATERA?

Robinson Crusoe, lehen bait lehen ateratzeko handik!

Jose Miel Elustondo

“**Nere ametsa...? Euskal Herri euskalduna**”

Enputecidos:

lehendabiziko maketa aurkeztuz

URTE BERRIAREKIN BATERA sortu zen rock talde berri bat Gasteizen, Emputecidos izenekoa. Gure hiriko lau musikari, bere aurreneko proiektuak geldirik zeudela ikusirik, elkartu ziren kañari ekiteko asmoz. Experientzia ez zen falta: Txarli (abotsa, kitarrajolea eta konposatzailea) Residuos Tóxicos taldetik zetorren; Danik (baxua) eta Molik (kitarra eta koroak) aspalditik elkar ezagutzen zuten, luzaro elkarrekin arituak baitziren eta beren musika lokaletik ez zen atera inoiz; laugarren lagunak, Carlos, maketa grabatu ondoren bateria eta talde ere, laga egin zuen. Hala ere, Emputecidos-ek aurrera jarraitzea erabaki zuten, orain hirukote bilakatuta.

Udaberriaren aurreneko egunetan «Estudios Ali-n» sartu ziren gaur egun bere lehenengo maketa duguna grabatzeko. Eraitza ez zen batere txarra izan, eta horren ondorioz laster izan genuen kalean salgai «Emputecidos por el sistema» izenburupeko musika-lana.

Hogei minutu guztira, zortzi abesti rock kaletarrari oratuta. Kitarra indartsuek punk-aren kemena eta duela hamar urteko Euskal herrio rock and rolla gogora dakarkigute. Ez dituzte bere influentziak izkutatzen: Eskorbuto, RIP edota La Polla Records garrantzia handikoak izan dira eta dira oraindik bere entzunaldietan. Kanpotar batzuk ere badute lekuri beraiekin belarrietan NO FX-ek alegia.

Abestiak ez dira luzeak. «Zenbat eta laburrago hobe, ez dugu inor aspertu nahi», aitortu digute. «Hiru minutu nahikoa da esan nahi duguna adierazteko. Sistemari kritikatu beharrean gaudela uste dugu. Gazteriaren egoera eta munduarena zabaldu. Hortik etorri zitzaigun taldeak eta maketak daukaten izena ipintzeko ideia. Ez dugu instituzioen aldetik ezer nahi. Gizarte hau ez da inola ere gure gustokoa, horrexegatik



Harremanetarako kontaktoak: 25 73 06 (Txarli)

idazten dugu soldadutzaz, edota espetxeaz, errepresioaz, ze-zenketez... Berauek dira aldatu beharreko zenbait gauza. Hala ere, ez gara beti hain ezkorrak izaten, eta maitasunari ere tokitxo bat egiten diogu».

Maketa kalean dago jadanik eroslearen zain; oster, gutxitan jotzen dute baina bai, ilusio handiz eta aurrera begira.

Joxe Mari- Txabi Arnal Gil

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA



Florida Azoka
2 eta 3
☎ 13 24 48
Abastos Azoka
2 eta 3
☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA

HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*ankerarik zabalena
kalitaterik onena*

Esperantoa

hizkuntz inperialismoaren aurka



Edozein lanpostu edota beka lortzeko ingelesa edo frantsesa jakitea ia ezinbestekoa den garai honetan, idealisten talde batek esperantoa bultzatu nahi du nazioarteko hizkuntza laguntzailea izan dadin. Bilbon sortu zen 1960an Euskal Herriko lehen talde esperantista eta Gasteizen duela zazpi urte oraingo taldea. Egunotan, Domusantuko zubian hain zuzen, guztiok izango dugu esperantoa ikasteko aukera. Edozein hizkuntza menderatzeko lau urte ez ohi dira aski izaten eta esperantoa lau urte barik lau egun baino ez dute behar izango Euskal Herriko Kongresu Nazionallean parte hartzera animatzen direnek. Bestalde, esperantoaren atzean hizkuntz inperialismoaren aurka eta hizkuntz minorizatuaren aldeko filosofia sakon bat dago. Horra hor esperantoaren leloa, horren argigarri: "Bakoitzak berea eta esperantoa denontzat".

★
IZ
TABERNA
ARA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

 **ardatz** itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

“Hizkuntza minorizatuak dituzten herrietan esperantoarekiko kontzientzia eta sentsibilizazioa handiagoa da”

LAZARO LUDOVICO Zammenhof-ek plazaratu zuen esperantoa 1887. urtean. Varsoviako judua zen bera eta hebraiera zuen ama hizkuntza. Eskolan, berriz, errusiera ezarri zuten eta kalean alemanieraz egiten zuen. Hizkuntz nahaspila horretan bizi eta gero aise ulertzen da hizkuntza unibertsala sortzeko ideia izatea.

Arrakasta handia lortu zuen esperantoak denbora gutxitan. 1914an nazioarteko kongresua egiteko asmoa zerabilten hainbatek. Aldiz, gerrak zapuztu zuen ekimen hori. “Aurreko urteetan UNESCOk, Nazio Batuek eta beste zenbait erakundek oso deklarazio politak onetsi zituzten baina frantsesa zen orduan munduko hizkuntza nagusia. Horrexegatik, Parisek presio handia egin zuen esperantoak aurrera egin ez zezan”, esan digute Isabel Axpe Gasteizko Esperanto Elkarteko presidenteak eta Natxo Apaolaza Euskal Herriko Elkarteko buruak.

Ekialdeko Europan erdietsi zuen esperantoak arrakastarik handiena. “Han ingelerak inperialismo kutsu handia zuen eta esperantora jotzen zuen jendeak. Oraindik ere esperantoak prestigio handia du bertan”.

Mugak apurtzea helburu

Gizakion arteko mugak apurtu nahi ditu esperantoak. “Egun ez dago muga fisikorik; hizkuntz mugak, ordea, nagusi dira”. Esperantoaren filosofiaren arabera,

nazioarteko anaitasuna eta neutraltasuna bultzatu beharrekoak dira.”Sei urtez atzerriko hizkuntza bat ikasten ihardun eta gero normalean ez duzu guztiz menderatzen. Horren ondorioz, komunikazio arazoak ekidiezinak dira. Hizkuntza neutrala behar da, beraz.

Euskaldunak kontzientziatuagoak

“Politikari batzuek esaten dute euskara barik ingelera ikasi behar dela baina hori ez da Euskal Herrian soilik gertatzen, hizkuntz arazoak dituzten herri guztietan



Esperantoa lau egunetan



“ESPERANTOAK

ez du egun erabilgarritasunik”, aitortu dute Isabel Axpe-Montoyak eta Natxo Apaolazak. Hala ere, duela zazpi urte lanean hasi zen Gasteizko elkarteak bere ikastaroetan parte hartzera gonbidatzen gaitu denok. Zergatik? “Batetik, esperantoa propedeutikoa delako eta bestetik, oso erreza delako”. Ama hizkuntza eta gainerakoak hobeto ikasten eta ulertzen ahalbidetzen duelako dugu propedeutikoa esperantoa. “Ingalaterran eskola bateko bi gelek frogatzen egin zuten. Gela bateko haurrek frantsesa ikasi zuten bi ikasturtetan zehar. Beste gelakoek artean lehenengo urtean esperantoa eta bigarrenengo frantsesa. Bi urteren buruan azken hauek hobeto menderatzen zuten frantsesa besteek baino”.

Erreza da “hamasei gramatika arau baino ez duelako, eta gainera, ez dago inolako salbuespenik”. Hori ez ezik, esperantoa, euskara bezala, hizkuntza aglutinantea da, alegia, erro bati atzizki eta aurrizkiak gehituz sortzen dira hitzak. “Euskaldunontzat, beraz, errezagoa”.

Badakizue, oso erreza izateaz gain, beste hizkuntzak ulertzen ere laguntzen du. Interesik duten guztiek lehenbait-lehen eman dezakete izena Zapa kaleko lokalean Domusantuko zubiko ikastaro trinkoan parte hartzeko. “Ikastaroa, berez, doanezkoa da baina Euskal Herri osoko jendea etorriko denez, aterpetxe batean egin behar izango dugu.” Hortaz, ostatua soilik ordaindu behar izango da. Lau egunetan ikasiko dute esperantoa ikastarokideek. Natxok eta Isabelek hala agindu digute behintzat!

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea,7
Tfnoa:(945)146261 • Fax:(945)143509
01001 GASTEIZ



baizik". Horiei men eginez gero, basamortu bihurtuko litzateke gure herria, esperantozaleen ustez: "Ingelerak eta estatuetak hizkuntzek soilik iraungo lukete bizirik". Nola edo hala, hizkuntza minorizatuak dituzten herrietan esperantoarekiko kontzientzia eta sentibilizazioa handiagoa da, hala nola, Catalunya, Flandes, Quebec... Izan ere, Gasteizko esperantodunik gehienak euskaldunak dira.

Horretaz gain, euskarak interes handia sortzen du atzerriko esperantodunengan. Isabelek eta Natxok adirazi digutenez, iaz Valentzian egindako nazioarteko kongresu batean gure aldizkari honetako kolaboratzailea den Iñaki Gaunak euskarari buruzko hitzaldi bat eman zuen jakinmin izugarria sortuz bertaratu zirenen artean.

“ **Euskarak
interes handia sortzen
du atzerriko
esperantodunengan** ”


Iñaki Gaunak berak "Euskara-Esperanto" hiztegia egin zuen eta Aitor Arana gipuzkoarrak esperantoa ikasteko metodo bat sortu du euskaraz.

Natxo Apaolaza eta Isabel Axperen irudiko, "euskara eta euskal kultura zabaltzeko balio du esperantoak". Euskal Herriko Esperanto Elkarteak bi aldizkari argitaratzen ditu: "Kuspe" ("a contrapelo") eta "Euska Kuerko" (Euskal haritza). Barne aldizkaria da lehenengoa. Euskal Herria, bere kultura, ohiturak eta berriei buruzko artikuloak zabaltzen ditu

bigarrenak. Azken aldizkari hau Lituania, Vietnam, Txina eta beste hainbat herritara heltzen da. Ildo horretan, nazio horietakoek honera bisitari egiten dutenean beraien etxeetan hartzen dituzte hemengo esperantozaleek. Ez ohi dute zertan ostatua bilatu beharrik. "Beraz, kulturak ezagutzeko ere tresna egokia da esperantoa, munduko hizkuntza interaktibo bakarra baita".

Leire Lopez de Aberasturi


ESPERANTO GILTZA



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27



KILKIR txaranga: Arabako doinuak zabalduz



Hamalau lagunek osatzen duten Kilkir txarangakoek maiatzean zinta bat grabatzera animatu ziren. Tuterako gaiteroekin batera eta beste bi lagunekin ekin zioten lanari. "Celedon", Alabesaren ereserkia, "Aupa Zabalza", "Askatasuna" eta gisa horretako abestiak biltzen ditu bere baitan gasteiztar hauen ekoizpen lanak. Araban zinta bat grabatzen duten lehenengo txaranga izanik, guk Felix Saez de Lubianorekin, taldean tuba jotzen duena, hitzegin dugu esperientzia horretaz, txarangaren helburuaz eta istorioaz

KILKIR txarangakoen helburua noizbait zinta bat grabatzea zen, eta txarangak hamar urte bete dituenen hori egiteko aukera izan dute. "Betidanik izan dugu hori buruan, eta orain dela urte batzuk ez genuen ez jenderik ez mailarik, baina aurren, azkenean, lortu dugu, eta oso pozik gaude zintak izan duen harrera onarekin" esan digu Felixek alaitasu.

Lehen gehienek beste fanfarria batekin jotzen zuten, baina 1984. urtean Kilkir txaranga jaio zen talde txiki baten eskutik. Orain hamalau lagunek osatzen dute txaranga. "Oso ongi konpontzen

deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34
Gorbea 27
Ariznabarra 17

tfnoa: 24 75 04
tfnoa: 24 22 05
tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

J A T E T X E A

H I R U A K

Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

gara elkarrekin, denbora luze daramagu herriz herri eta kalez kale jotzen, eta gainera astero elkartzen gara behin edo bitan entsaiatzeko”.

Felixen ustez, Gipuzkoan txarangek tradizio haundiagoa dute Araban baino. “Gasteizen lehen ez zegoen txarangarik, eta gero “Indarra” eta “Ezberdianak” sortu ziren, eta urte batzuk geroago beste fanfarria batzuk osatuz joan ziren, besteak beste, gurea. Hemen zailagoa da txaranga bat sortzea Bizkaian edo Gipuzkoaldean baino”.

Araban Txaranga batek ateratako lehn zinta

Kilkir txarangakoek kalean jotzea gustokoa badute ere, hori baino gehiago egin nahi izan dute, eta zinta bat grabatu zuten, Araban txaranga batek grabatuko zuen lehenengo zinta izango zena, alegia. “Guretzat oso garrantzitsua da Gasteiz eta Arabako kulturaren barnean nolabait parte hartzea, eta zinta honekin hemengo kulturaren gure presentzia agerian utzi nahi izan dugu”.

Kanta batzuk ondo prestatu ondoren, estudiora jo zuten lanari ekiteko asmoz. Lan gogorra izan da, gainera eurak arduratu dira zintaren banaketaz. “700 aleko tirada kaleratu genuen, eta ia guztiak salduta daude. Honelako esperientia batek pena merezi du, gainera gu oso pozik gaude lortutako emaitzekin”.

Historia egin duten 13 abesti

Hamahiru abesti ditu zintak. Orokorrean esanda, hamar urte hauetan historia egin duten abestiak dira. Beraien ustez, kanta horiek laburbiltzen dute Kilkir txarangaren ibili osoa, hasieratik gaurdainokoa: denetariko abestiak

dira. Adibidez Tuteran lagun onak dituztenez, bertako gaiteroekin batera bi abesti grabatu dituzte: bestalde “Rock de las Vegas”, “Lesaka”... hasieratik jotzen dituzten kantak dira. Felixen ustez “gaiak oso desberdinak dira, denetarik dago, txarangaren bizitza orain arte izan dena kanta hoietan dago. “Askatasuna”, bestalde, geure abestitzat jo dezakegu, gure nortasuna laburtzen duelako”.

Zintak mila pz. balio du, baina aberaztea ez da beraien helburua, izandako gastuak ordaintzeari aski deritze. Dena dela, herrietako jaietan edo jotzen dutenean kobratu beharra dute, “gastuak baditugu; arropa, jotzeko tresnak eta abar. Gainera beti kalez kale gaudela kontutan izanik, tresnak hondatzea ez da oso zaila. Esaterako, zinta grabatzeko tuba bat erosi behar izan genuen, eta miloi t’erdi kostatu zigun” adierazi zigun Felixek.

Udaberrian eta udan jotzen dute batez ere Irailean Legutianon eta Agurainen



izan dira, eta urriaren 12an Mendozako jaietan entzuteko aukera izango dugu “eta momentuz hor bukatzen dira gure aurtengo asmoak; gero berriro entsaiatzeari ekingo diogu gogor, udan jaiekin eta ez baitugu hainbeste denbora izaten elkartzeko eta entsaiatu ahal izateko”. Beraz urte osoan lan egiten dute festetako giroa alaitzeko asmoz, baina gustora iharduten dute, hori baita atzean dutena.

Severo Ochoa ikastetxean elkartzen dira entsaiatzeko, baina beraien hurrengo helburua elkarre bat sortzea da, batez ere beraien lokala lortzeko asmoz. Dena dela, orain pozik daude ateratako zintarekin. Lan gogorra izan bada ere, ea zinta gehiagorik grabatuko duten galdetu diogunean, baietz espero dutela erantzun digu Felixek; beraz, animo eta segi aurrera.

Itziar Mtz. de Santos

TXUSTIA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Abuztuaren 15a arte irekita
Barra goizeko 7etatik aurrera
Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak

ZENBAIT DATU

BIZTANLEAK: 12500 inguru.

MUGARTEAK: Gasteizko hiribidea ekialdean, trenbidea hegoaldean, mendebaldetik Pedro de Asua eta Txile kalea iparraldean.

HISTORIA: gasteiztarrek suntsitu zuten Abendainoko basetxearen hondakinen gainean eraiki zen mende batzu geroago, industrializazio garaian, Gasteizko lehenbiziko lantegia: Ajuriako Metalurgia edo "La Meta". Honekin batera beste lantegi batzu eraiki ziren, baina 70.eko hamarkadan zehar desagertzen joan ziren, eta egoitz auzategi gazte bat eraiki zen: egungo San Martin auzunea.

BERDEGUNEAK: San Martin eta Kontxetako parkea, Abendaino, Ajuria, Doublang margolaria eta beste berdegune askotxo.

BIZTANLEGOA: Oso biztanlego gaztea da bertokoa, seme-alaba gutxitakoa, eta azken urteotan Bizkaia eta Gipuzkoatik etorritako funtzionari euskaldun kopuru nabarmenakoa.

JAIAK: Azaroaren 11an San Martin eta maiatzan

San Martin:




Gazte gutxi gara "La Meta" lantegi hura gogoan gordetzen dugunok, baita oinak Abendaino errekan busti izan genituenok ere. Baina gazte eta adintsuek, denek, kantatu izan dute noizbehin Gasteizen auzo honek soilik duen kanta propioa. "Zu zara San Martin, auzo alaia, kastizoa eta popularra", hain zuzen.

Bertoko historia gutxi bezain ondo dakien Jose Antonio Estibariz Arraizekin mintzatu gara, San Martingo Auzo Elkarteko kidea, eta mila eta ehun batailetan zaildua.

GEU GASTEIZ: Denok inbidiatzen dugun auzoa al da San Martingo hau?

Auzune honek, beste guztiek bezela, bere arazoak baditu. Egia da berdegune eta oinezkoentzako kale askotxo ditugula, eta bizitza-kalitatea altua dela, baina arazo asko ere dago ere berton, eta Gasteizko gainerako auzoek duten berberak.

G.G.: Zer dago faltan eta zer soberan hemen?



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

oraina eta lehena bat eginik

Jose Antonio Estibariz: Soberan ez dago ezer. Faltan bai, ordea. Jendeak uste baino gauza gehiago falta dira hemen. Besteak beste polikiroldegi bat behar dugu, Gizarte etxea ez dena, eta baita pilotaleku bat ere. Orain San Martin eskola inguruan erakitzen ari da kirol gune bat, baina arazoak ditugu lurren jabetza dela eta; izan ere, nahiz eta lurak munizipalak diren, hezkuntzakoek ez dute hau onartu nahi.

G.G.: Horrek ez al du makina bat arazo ekarriko?

J.A.E.: Ezetz espero dugu. Gure aldetik, eskolarekin batera elkar erabili deza-kegulakoan gaude, ordutegia banatuz. Bestalde, erabilienak diren kantxetan kuota bat jarri genezake, lanposturen bat sortuaz. Horrela, lanpostu hori kuota horrek finantziatuko luke.

G.G.: Arazo guztiak negoziatzearen aldekoak al zarete zuek?

J.A.E.: Bai, noski. Hor daukagu geriatrikoaren gatazka hura. Ez Udalak ez Foru Aldundiak ez zuten gure eskakizunak kontuan hartu ere egin; eta jadanik haserako proiektua errespetatu ez zen gune horretan, izatez berdegune eta jolastokirik


izan behar ziren lurak geratriko baten sustrai bihurtu dira. Orain gure umeak jolastoki gabe geratu dira, eta agureak hormatzarren artean. Izan ere Ajuriako etxeek proiektuan baino altuera askoz ere handiagoa dute.

G.G.: Burruka hori galduta, zer gudatan zaudete orain sartuta?

J.A.E.: Gauza asko daude oraindik konpontzeke. Aipatutako Ajurian adibidez, era ezegokian landatutako zuhaitzek etxetaraino heldu dira, alde batetik ikuspegia oztopatuz, eta bestetik alergia eta gaixotasun batzu sortuaz. Honetan ere ez digute entzun nahi, batez ere Udal Teknikoa den Jesus Marcosek, bere ardurapean baitago sail hau.

G.G.: Beraz, ez da jendeak uste duen auzo lasai hura?

J.A.E.: Auzoa lasaia da, eta bizitza kalitate oso altukoa. Baina auzo guztiek dituzten arazoak baditugu hemen, eta gureak diren beste batzu ere. Umeak jolasteko eta paseatzeko leku handia dugu, baina zaila da paseatzea baloiak eta bizikletak euli bezela edukita. Bestalde zenbait errepide, eskola guneetan batez



ere, autopista hutsak dira, besteak beste Adriano VI.aren kalea. Gauza guzti hauek eta beste asko konpontzeko burrukatu behar da, eta hori ez da hona lasai bizitzera datorren jendearen egitasmoetan sartzen den gauza.

G.G.: Zein da orduan San Martinek duen aurpegi itxurosoena?

J.A.E.: Dudarik gabe antolatzen diren kultur ekintzak. Eta hoiaren artean euskara ikastaroak dira aipagarri. Izan ere euskarazko zazpi maila ditugu eta elebidun ludoteka bat ere. Harro gaude esatean euskarak ez duela inolako diskriminaziorik jasotzen guk antolaturiko ekitaldietan. Bestalde, beste auzoetan baino giro euskaldunagoa nabaritzen da kalean, arestian aipa bezela, bizkaitar eta gipuzkoar ezkonberrien etorrera dela eta. Kalean euskara egiten da San Martinen.

Asier Perez de Karkamo

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20


**zure euskal
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia



ALBENIZ
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8
Telefona eta Faxe 28 74 82
01008 GASTEIZ

Pailazo bat nire logelan

Martxoaren 20an nire urtebetetzea da. Aurten pailaso bat oparitu didate. Arraroa da, bai, oso arraroa da. Ez zait gustatu eta horregatik berarekin esperimentuak egin ditut. Egun batean garbigailuan sartu nuen. Seguru nago mareatu egin zela garbigailua gelditu zenean ez baitzen pailazo berbera. Pailazo

baino troll baten antza zuen. Horrek izugarri harritu ninduen, hori ez baita normala. Ia itota aurkitu nuen. Oso gaizki zegoenez lagundu egin nion.

Hilabeteak pasa ondoren ongi zegoen eta ikastolara eraman ahal izan nuen. Oso barregarria zen. Gauza harrigarriak egiten zituen eta zigortu egiten zuten klasea

mozteagatik. Etxean denetarik jaten zuen: zaborrak eta behar ez ziren gauzak ere jaten zituen.

Nire gelako armairuan egiten zuen lo. Erropa artean ongi moldatzen zen. Bere lagunik onenak jertsei larrosa, kamiseta gorria eta praka berdeak ziren. Bere etsaiak, ordeak, kuleroak, galtzerdiak eta «top»-ak ziren.

Ikastolara joateko autobusa erabiltzen genuen: betiko geltokian hartzen genuen beti. Horrela pasatu zuen bere bizitza lana aurkitu arte.

Ordurako hasieran baino bi metro eta hamabi zentrimetro gehiagoko luzera zuen eta saski-baloi jokalaria zen. NBA-n jokatzen hasi zen eta jokalaria onena izan zen, hori bai, bere betiko aurpegi polita inoiz galdu gabe.



ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

ean



Bokaleen bila

HEMENGO HAUEK bi asmakizun dira. Jarri ditugunean bokal guztiak erori egin zaizkigu. Lagunduko al diguzu berriro ere bere lekuetan jartzen

B _ s _ _ n b _ rd _ _
 b _ ltz _ pl _ z _ n,
 _ t _ g _ rr _ _ tx _ _ n
 Z _ r _ z _ ng _ _ t _ d _ ?

ikatz

_ d _ n j _ ntz _ r _ k
 n _ g _ _ n b _ l _ z _ k
 N _ r n _ _ z n _ ?

zuhaiz

Hizki salda

Koadro honetan 9 animaliren izenak aurki ditzakezu. Saia zaitetz!



L	A	D	I	K	O	U	N	T	X	I	A	T
U	E	T	X	A	K	U	R	R	A	T	X	X
J	L	O	K	T	R	N	B	E	H	I	A	O
P	E	T	L	U	R	K	S	X	M	D	E	R
F	F	A	H	A	T	E	A	F	G	O	T	T
A	A	O	M	S	O	U	L	K	H	N	M	A
B	N	P	A	O	U	E	P	O	U	U	U	I
R	T	U	T	X	T	G	X	O	B	S	O	M
N	E	B	E	A	R	O	E	G	A	T	O	E
A	A	R	M	T	A	R	M	A	S	K	U	A
T	X	E	R	R	I	A	S	A	I	N	E	B

Asmakizunak

Amak bi ditu
 aitak ere bai
 semeek batere ez
 eta alabak hiru.
 Zer daaaaa?

OSO astiro ibiltzen naiz
 baina ez naiz alferra
 noan lekuan uzten dut
 zilarrezko hari ederra

Hiru ahatetxo gara
 uretan igerian
 bakoitza bi
 eta bakuteketan sei

Erantzunak

222
 barraskiloa
 "a" letra

Kaixo lagunok!

Oraingoan ere
 zuek bidalitako
 lanekin bete
 ditugu bi orritxo
 hauek. Gogoratu...
 ipui bat,
 denborapasaren
 bat, asmakizunen
 bat, nahi duzuna
 bidali ahal
 diguzu. Hori bai,
 ez ahaztu izena
 jartzea!

DEIADAR
 GASTEIZ
 FANFARREA

Telefona: 23 17 13

UDABERRIA
 elkarte

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
 Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
 GASTEIZ

bar • restaurante
 Portal del Rey 9
 albéniz
 GASTEIZ

Martin Fiz: europako

Martin Fizen eskutik arabarrok eskuratu dugu Europako txapelketa. Zaramagako korrikalariak negu gogorra igaro behar izan zuen, krosean aritzen zen bitartean, benetako helbururako, hau da, maratoirako prestakuntza aurrera eramane baitzuen. Halere, emaitzak udaberriarekin batera etorri ziren. Apirilean estatuko maratoi marka bereganatu zuen Helsinkin, eta lau hilabete beranduago, Europako txapelketa. Hori garaipena! Baina nor da horren guztiaren erruduna? Argi dago, Martin Fizek berak. Alabaina, "Martintxo" amultsuki deitzen dioten batek, Sabino Padilla sendagile ospetsuak hain zuzen, badu zer esanik horretan. Hurrengo helburuak amets hutsak al dira? Martinek ametsak egia bihurtzen ditu. Munduko Maratoi Txapelketa eta 96ko Atlantako Olinpiadak ditu begien aurrean gasteiztarrek. Aupa Martintxo!



• MARTIN FIZ txapelduna •

- ❑ Aurreneko 25 kilometroetan tropel nagusia ez da apurtu
- ❑ 25 km: Portugaldar baten eraso. Martinek erantzuna. Biak lasterketaburu.
- ❑ 28 km: Portugaldarra atzean gelditu da. Diego Garcia azkoitiarra eta

- Alberto Juzdado indartsu dabilta.
- ❑ 36 km: Helmugarako sei kilometro baino ez dira falta. Juzdado atzean geldutu da.
- ❑ 40 km: Helsinkiko Stadiumean sartzean daude korrikalariak. Martin Fizek eraso egin du

- eta bizkarra erakutsi dio Diego Garcíari.
- ❑ Maratoia bukatu da. Gasteiztarrok Europako txapelduna dugu gure artean. Martinek negar egiten du bere laguna den Diego Garcia heltzean. Europako Txapelketaren marka hautsi du.

TROPEL NAGUSIA



0 km

10 km

Cervecería Alemana

SALTIXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

Ederki

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industrialak

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

txapelduna, geure txapelduna !

ABUZTUAK 14. Goizeko zortzi t'erdia dira. Gasteiz hutsik dago. Gure hirian jende gutxi dabil kalean, abuztua opor hilabetea baita, antza. Jaiek utzitako ajea atzean geratu da.

Helsinki. Finlandiako hiriburua. Bertan gasteiztar batek urrezko kapitulua idatzi du Arabako kirol historian. Berrogeita bi kilometro egin eta gero, Europako txapeldun berria da.

Martinen senitarteko eta lagunentzat goiz polita izan zen hura. Telebistaren aurrean guztiak bildu ziren, baina horra hor bestea! Telebista espainarrak gauzak konplikatu nahi, eta Europako Txapelketei ez ziren jaramonik txikienik ere egin. Martinek honela azaldu du: "Eskerrak etxean antena parabolika dugula. Emaztea, haurra, gurasoak eta lagun guztiak "Eurosport" kirol kateari begira egon ziren. Horri esker, txanpaina botila zenbait ireki ahal izan zuten, bestela... Egia esanda, Espainiako telebistaren jokabidea lotsagarria izan zen".

Abuztuko goiz hura aurrera zihoan. Irratiek Gasteizko kaleetako biztanle bakanei berri pozgarria iragartzen

zieten. Inork gutxik zekien, ordea, Fizek lortutakoa lan gogorraren emaitza baino ez dela. Berrogeita bi kilometro pasatxo horiei aurre egiteko, Martinek 40 egun eman zituen Navacerradako mendietan zehar lasterka eginez. Inork ez dio ezer oparitu gasteiztarrari, eta emaitzak begi bistakoak dira: lau hilabetetan bi minutu gutxiago behar

izan zituen maratoiaren 42 kilometroak bukatzeko. Hala ere, arrakastak ez du Martin Fiz aldatu, eta apaltasunez beteriko laguna badugu ere, beti helburu berriak izaten ditu buruan, "datorren urtean Munduko Txapelketa izango da. Keniarrak eta mexikarrak arerio gogorrak dira, baina neure marka minutu batean jeitsi eta postu ona



“Datorren urteko Munduko Txapelketan minutu batean hobetuko dut nire marka”

urrezko domina honela lortu zuen



ELKARTASUN DENDA



Iratxe Bidaiak

Gorbea 12 • Tfnoa: 22 00 16 • Fax: 24 84 07
GASTEIZ

ofertak URRIAN

Aste bukaerarako edota beste edozein lekutara joteko galdue bulegoan bertan.

BENIDORM 15.200
MALLORCA 24.800
TENERIFE 41.200
TUNEZ 46.000
Isteerak Gasteiztik
KUBA 79.900
KANKUN 96.900

“Gailurrean egoteko gogotik borrokatu behar da.”

egingo dut. Bestalde, Atlantako Olinpiadetan domina neureganatzea dut amets”.

Amets edo helburu horiek Martin Fizek krosa alde batera utz dezan behartuko dute. Gure korrikalariak txapela asko jantzi du krolean, eta Euskal Herriko zaletuei beren txaloak eskertu nahi dizkie: “Euskal Herrian kros sehaska dago. Hemengo lasterketarik garrantzitsuenak korrituko ditut baina horietan afrikarrek bizkarra erakutsiko didate, maratirako prestakuntza dela eta”.

Borrokalariaren malkoak

Abuztuaren arrats hartan prentsa-kazetariak Martinen balentria zuten idazgai. Baina guk Martini buruz jarraituko dugu ihardunean. Pertsona ahaztezin bat dugu Martin Fizen kirol bizitzan, Sabino Padilla sendagile ospetsua, alegia. Banesto taldeko medikuak txapeldunak sortzen ditu, horra hor Miguel Indurain. Martin ere bere aginduetara dago. Sabino aipatu eta gasteiztarrek hitz politak baino ez dizkio eskeini: “Pentsamoldea aldatu eta txapelduna egiten zaitu”, gaineratu du.

Helsinki maratoia da Euskal Herriko atletismoak egin duen lasterketarik politena, festa ez baitzen amaitu Fiz helmugaratzean. Zilarrezko domina Diego Garcia azkoitiarrak eskuratu zuen.

Martini une hura ekarri diogu gogora: “Diego eta biok oihukatu eta negar egin genuen helmugan. Diegori “lortu dugu” esan nion. Pentsa, gero bazkaltzea ere ahaztu zitzaigun”. Argi dago Diego Garcia eta Martin Fiz kalean lagun-minak direla: pistan, aldiz, elkarren arerioak.

Orain ospakizun, omenaldi eta zori-onak jasotzeko ordua iritsi da. Gasteizko kaleetan, are semaforoetan ere, lagun askok Martin Fiz geldiarazi ohi dute lasterketaria zoriontzeko. “Forjas Alavesas-eko” langile apal baten seme dugun honek, ordea, badaki hau guztia gogor lan egin izanaren emaitza dela. Bukatzeko, hau adierazi digu, “atletismoan guztiak umilak gara. Ez dago aberats jaio denik. Gailurrean egoteko gogotik borrokatu behar da”.

Abuztuak 15: Egunkariaren lehen orrialdean Martin Fiz helmuga puntuan Diego Garcia besarkatzen agertzen zen. Hori da balentria, hori!



Ismael Diaz de Mendibil



HegoAmerikako jantzirik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren kantoia ertzean Tfnoa: 25 03 52




**IRUNA
TABERNA**
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro
erinhobeak Kutxileria 23
GASTEIZ

DENBORAPASA



ZE HARRETARA

1. Aurten, Irailako bigarren astelehenean. Baldintza. 2. Iriziz, ustez. Edateko. 3. Ziatu aditzaren infinitiboa. Ezezkor. 4. (Ald.) Bizkaieraz du. Imintzioa. 5. Hidrogenoa. Ari, jardun. Potasioa. 6. Pozik, kontent. Algodoi. 7. Bokale izena (pl.) Huts, garbi. 8. Kontsonante bikoitza. 9. Janari urtsua. Barazki bat. Lehena. 10. Taugreseko jokalaria bat. Txori mota.

GOITIK BEHERA

1. Oxigenoa. Arbola. 2. Lurra iraultzeko tresna. Metale bat. 3. Apezak. Beruna. 4. (Ald.) Oinarrizko edari. Nola atzikia. Garai bateko talde ultraeskuindarra. 5. Zabaldu. 3,14. Sufrea. 6. Okerrak zuzentzea. 7. Ipurtzulo. Arabako herriska. 8. Txar ez. Gizon izena. 9. Buruan jartzeko. Lehena. Oxigenoa. 10. Jatorri atzikia. Lehena. Peruko zibilizazioa.

Ezetz lortu!

Kapaza izango ote zara ezkerreko irudia marrazteko arkatza paperetik behin ere altxatu gabe? Saiatu zaitetz, erreza da eta!



ERANTZUNAK



APAIZ BATEK besteari:

- Zuk zer uste duzu apaiz ezkondurik ezagutuko dugula ala ez?
- Guk seguru asko ez, baina gure seme-alabek bai noski.

EROETXEKO BATEK gelaz aldatzea

eskatu dio egoitzeko zuzendariari:

- Nire gelakideak Herri Torrontegi dela uste du eta nik ezin dut egoera hori gehiago jasan
- Ze, ateratzen dituen soinuek molestatzen al dizute?
- Ez, soinuek ez; keak!

LAGUN KOADRILA tabernan bilduta

dago. Halako batean txiste giroa

sortzen da eta zera botatzen du batek:

- Ba al dakizue zer diferentzia dagoen Jainkoaren eta bilbotarren artean?
- Basta hi! Bota ezak eta isildu hadi!
- Jainkoa leku guztietan dago, eta aldiz bilbotarrak leku guztietan egon dira.

LAGUN KOADRILA, ondo afalduta

gero, Bilbo aldera abiatzen da parranda

botatzera, eta bidean kartel handi

batekin egiten dute topo «Aceros de

Llodio», harriduraz edo, zera esaten

dio bata besteari:

- Egingo al gaituk?

GOIZEKO ZAZPIAK aldera bi

langilek topo egiten dute lanerako

bidean:

- Kaixo! Ze tenperatu egiten du gaur?
- Zero grado edo.
- Ze ondo, ez hotz, ez bero



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU

Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18

Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05

Poteo eta giro ona

ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6
23 31 92

Eguneko menua

Pablo Milanes



honako antzerki lan hauek ikusi ahal izango dituzue:

gaztetxoentzat

AUPKEZPEN BILERA
ikasturtearen

IZENA EMATEKO BILERAN BERTAN

Euskadi Gaztea

IV maketa lehiaketa



Oinarriak:

LP edota disko-kontratua duten taldeek ezin izango dute parte hartu.

Zintak eta taldeari buruzko informazioa Urriaren 30a baino lehen bidali behar dira.

Bi sari egongo da dirutan: 600.000 eta 250.000 pta.

Zintak bidaltzeko edota informazio gehiago eskuratzeko:

Gasteiz Irratia
Pasaje Postas 32
01.001 GASTEIZ.

Gasteizko antzerki akademia
Antzerki Gasteizko akademia
Gasteiz Antzerki akademia



Antzerki-hastapenak

Ikastaroa

Argibideak:

GASTEIZ antzerki taldea
Zumakera 41, 11. pabeiloa
Tfnoa: 14 11 17

sukalde txokotik

Karibeko entsalada

Osagaiak:

- Letxugak: 2 kuku.
- Piña: 4 txirrindola
- Platanoak: 2
- Pomeloa: 1
- Limoia: 1

Saltsa egiteko:

- Olio: edalontzi erdi bat (100 ml)
- Ozpina: 3 goilarakada
- Arraultzea 1
- Gatza, piperrautsa

Nola egin:

Kukuluak garbitu eta zatikatu bakoitzetik lau pusketa bereiziz. Ebaki limoia zerratan eta piña pusketatan. Pomeloa zuritu eta zatikatu, azal zuria kendu eta gero.



Irabiagailuaz nahasi kakahueteak, olio, ozpina eta arraultza, krema mehe bat lortu arte. Gatza eta piperrautsaz umotu.

Kukuluak ezarri erretilu batean; horren erdian paratu fruta guztia satsarekin nahasirik.

Aholkua: frutak kolore beltza har ez dezan bota bere gainetik limoi zuku tanta batzuk.

Krepeak izozkiarekin

Osagaiak:

- Natazko izozkia: 4 bolatxo
- Gurina: 100 gr.
- Azukrea (lustre izenekoa): 50 gr.
- Limoia: 1
- Rona: kopa txiki bat

Saltsa egiteko:

- Irina: 6 goirakada
- Arraultzak: 3
- Esnea: 1/4 l.
- Azukrea: goilarakada bat
- Koñaka: txorrotada bat
- Gurina

Nola egin:

Nahasi azukrea eta irina; arraultzak, esnea eta koñaka gaineratu gero. Iragazi ondoren, eduki mamitzen 30 minutuz gutxienez.

Goilarakada bat gurin urtu zartagin batean. Lehentxoago osaturiko mamia berreskuraturik, bizpauru goilarakada bota bertara, zartaginaren hondoa erabat



har dezan saiatuz. Krepea frijitu bi aldetatik urre kolorea har dezan arte. Horrelakoxe prozedura erabili gainontzeko krepeak prestatzeko.

Laranja eta limoi zukua nahasi gurina eta "lustre" izeneko azukrearekin. Su epeletan egosi azukrea urtzen deneino.

Krepeak tolestatu eta lau izozki puskak beren baitan ezarri. Mahairatzeko orduan, saltsa bota gainetik eta ronez sua eman.

Aholkua: krepeak izoztu ahal dira edota aldez aurretik prestatu.



Bacalao Giraldo

•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»



Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz

**GASER
TABER
NARIA
ETA
1.000
P2TA**



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Barailbar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



Lortu azkar zure TeleCaja Joven
ala honela geratuko zara!!!



Linea Gaztea

Caja Vital  Vital Kutxa

Etxebizitza erostekotan bazabiltza, negozioren bat zabaldu nahian edota kotxea erosteko edo oporrak egiteko kreditua eskatzeko asmotan... entzuidazu ala buruz behera ibiliko zara. Zatoz Caja Vital Kutxa Joven-era. Guretzako bereziki dituzten abantailak aprobetxatzeko aukera daukazu. Egin esandakoa, ni bezain zintzilik geratu nahi ez baduzu.